



Gobernu Batzarraren Akta

2024ko ekainaren 17a

Bildutakoak:

Patxi Ibarguren Etxeberria	Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik
Pepe Iparraguirre Balda	Andoaingo Udaletik
Iratxe Begiristain Otegi	Usurbilgo Udaletik
Jorge Segurado Iriondo	Urnietakoko Udaletik
Nuria Fernandez Castrillo	Lasarte-Oriako Udaletik
Xabier Urdangarin Lasa	Astigarragaako Udaletik

Akta Zenbakia 00000007
Eguna 2024/06/17
Iraupena -

Asistentzia teknikoa:

**Julen Mungia Idazkari-Kontuhartzalea
Gorrotxategi Helene del Río Laboa Zuzendaria**

Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi

dute:

Gai Zerrenda

- | | |
|---|--|
| 1.- 2024/05/13(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada. | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 13/05/2024. |
| 2.- Berri ematea Turismo mahaiaren inguruau egingo diren ondorengo lanketei buruz | 2.- Informar sobre los sucesivos trabajos que se van a realizar en torno a la mesa de Turismo |
| 3.- Berri ematea Zaintza mahaiaren inguruau egingo diren ondorengo lanketei buruz | 3.- Informar sobre los sucesivos trabajos que se van a realizar en torno a la mesa de Cuidados |
| 4.- Berri ematea Iraunkortasun mahaiaren inguruau egingo diren ondorengo lanketei buruz | 4.- Informar sobre los sucesivos trabajos que se van a realizar en torno a la mesa de Sostenibilidad |
| 5.- Azaltzea Elkar Ekin egitasmoaren inguruko berriak | 5.- Explicar las novedades del proyecto Elkar Ekin |
| 6.- Galdera, erreku eta proposamenak. | 6.- Ruegos, preguntas y propuestas. |

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko ekainaren 17a

1.- 2024/05/13(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2024/05/13 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak, Lehendakariak eskuordeturik eta aho batez, ontzat eman du.

2.- Berri ematea Turismo mahaiaren inguruan egingo diren ondorengo lanketei buruz

Zuzendariak gogorarazi zuen azkeneko eskualdeko Turismo mahai politiko-teknikoan zer gai jorratu ziren. Bertan, aipatu zen eskualdeko turismo hausnarketaren beharra eskualde mailan nola landuko den erabakitzeko. Kontratu txiki bat egingo dela eskualdeko turismo-lanketa bat egiteko, hau da, ikusteko udal bakoitza nola dagoen, eskualde ikuspuntutik nola uztartu daitezkeen eta zer den sustatu eta landu nahi duguna.

Lehendakariak gehitu zuen ideia dela modu efizientean egitea eta ez bikoiztea Mankomunitateak eta udalak egiten dituzten eqitaskoak arlo honetan.

Jorgek bere kezka berriro azaldu zuen, izan ere, berak beharrezkoia ikusten du qoqeta hau egitea Turismo teknikaria kontratatu baino lehen.

Bestalde, Jorgek bere adierazpenetan esan du teknikari bat dugula %50n Turismoan, baina idazkari-kontuhartzaileak zuzendu dio hori ez dela guztiz horrela, izan ere, gure Lanpostuen Zerrendan ez da horrela agertzen. Zehazki agertzen den bakarra da Iraunkortasun teknikaria %100, nahiz eta egia izan Turismoko lana Behemendirekin batera egiten dituen elkarlanean.

Jorlek adierazi du ez dakiqula oso ondo zer egiten duen Behemendik.

Astigarragako Xabierrek adierazi du beharra dagoela turismoa emateko. Urola-Kosta Mankomunitatean, adibidez, Turismo teknikari bat dago, eta gainera herri bakoitzak badu bere turismo bulegoa (turistak artatzeko tokia).

3.- Berri ematea Zaintza mahaiaren inquruuan egingo diren ondorengoa lanketei buruz

Zuzendariak adierazi zuen azkeneko Zaintza mahaiean landutakoa, batez ere, erabili zen udalerri bakoitzak kontatzeko zer egoeratan dagoen, Maitelanen kasua mahai gainean jartzeko eta Udalek eskualde mailan arlo honetan zein lanketa behar direla ikusten duten adierazteko.

Lasarte-Oriako ordezkariek esan du bertan izan zela eta oso batzar interesgarria izan zela.

Zuzendariak atera ziren gaietan sakondu eta lanean jarraitzeko, batez ere Maitelanen kontuan, mahai tekniko bat deitza proposatzen du. Batzordeak ondo ikusi du eta data aproposena iraila dela adierazi du.

4.- Berri ematea Iraunkortasun mahaiaren inguruan egingo diren ondorengo lanketei buruz

Zuzendariak azaldu zuen azkeneko eskualdeko mahai politiko-teknikoan zer landu zen. Eskualdeko energia planaren lanketa martxan jarri zen Asier Larretxearen bitartez. Eta lan-ildo batzuk lantzeko interesa plazaratu zen:

- Eskualdeko energia-bulegoa sortzea (seguraski ibiltaria izatea).
- Auto elektrikoen karga-puntuen inguruko lanketa, Udalek zalantzak baitituzte gai honen inguruan (praktika onak, nola kudeatu...).
- Bidegorri eta bideberdeen sarea. Herrien arteko loturak hobetzeko aukera ikusi zen. Lanketa epe luzekoa denez gaia lehenbailehen hartzea komenigarri ikusi zen.

Energia bulegoa eta beste kontuak lantzeko mahai teknikoa irailerako deitza erabaki zen.

Lehendakariak gehitu du Hiritik At-ekoek egindako Mankomunitateko egitasmoen taula eguneratuko dela, ikusteko zer ildorik eta egitasmo berri egingo ditugun.

5.- Azaltzea Elkar Ekin egitasmoaren inguruko berriak

Zuzendariak azaldu du orain indarrean dagoen Elkar Ekin programan, Mankomunitateko Enplegu teknikaria eta Zabalduz Koop.ko langile bat dabiltzala lanean eta horri buelta bat eman behar zaiola. GFAtik ere abisatu digute ez dagoela ondo eskualdeko eragileen

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko ekainaren 17a

mahaiaik dinamizatzen dituena Zabalduzeko langilea izatea, era berean, Zabalduz denean eragileetako bat. Horregatik, dinamizazio eta sustapen hori Mankomunitateak egitea eskatzen digute eta hortara joan behar dugu.

Hemendik aurrera, eskualdeko eragileekin sare profesionalago bat sortuko dugu (hitzarmen esparru bat sinatu beharko da etab.). Aurrerago zehaztuko da nola jokatu GFAk arauak ezarri baititu.

Formakuntzei ere buelta bat eman behar zaie, oraingoz 2 bakarrik egin ditugu eta gehiago eskaini beharko genituzke.

Eskualdeko enpleguko mahaia uztailerako deituko da izan ere bi gai garrantzitsu landuko dira: TEE 2023ko justifikapena eta Elkar Ekin 2025-2027.

Esan die udal-teknikariak jakinaren gainean daudela baina badezpada gogoratu die udal-teknikariek uztailaren 5 arte dutela TEE 2023ko justifikapena Mankomunitateari egiteko (informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko).

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

6.- Galdera, erregu eta proposamenak.

Patxik gogorazi du gure Lanpostuen Zerrendari buelta bat eman beharko zaiola eta honen inguruko, eta gainotzeko gaien inguruko, komunikazioa hobetzen saiatuko dela.

Bestalde, aitortu du empresa batekin kontratatu dugula Mankomunitateko komunikazioa, oraingoz, gutxienez, ez baitugu euskara eta komunikazio teknikaria. Halā ere, empresa horren zerbitzuetan hutsuneak daudela adierazi du, izan ere, askotan gure egitasmoak ez zaizkie hiritarrei behar bezala iristen. Proposatu du egitasmoak hobeto komunikatzeko agian hobeto dela Udaletan komunikazioataz arduratzen denarekin hitz egitea eta beraiek argitaratzea behar diren argitalpenak.

Bestalde, ekintzailetzaren alorrean, ekintzailetza-zerbitzua pertsona migratuei behar bezala emateko, formakuntza berezia eskaini nahi zaie negozio berri bat martxan jarri nahi duten pertsona migratuei, beraien beharrak nahiko desberdinak direlako gainontzeko ekintzaleekin alderatuta.

Jorgek galdu du ea egitasmo guztiei ondo heltzen diegun eta ez al den gehiegi, eta Patxik erantzun dio oraindik ideia bat besterik ez dela eta ondo aztertu behar den gai bat dela.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko ekainaren 17a

Bestalde, Patxik gogorazi zuen Mankomunitatearen sorrerarekin batera Beterri Saretuz sortu zela, eskualdeko enpresa batzuen artean, eta nahiz eta independenteak izan, bilera bat egiteko interesa dutela beraien aurkezpena eta ekintzen azalpena emateko.

Azkenik, Zuzendariak esan du Hazilan + egitasmoaren inguruan Garapeneak egin behar zuen lanketa ez duela burutu egitasmo hori onartu dezagun, beraz, hurerngo batzordera eramatzen saiatuko garela.

Digitalazio saioen inguruaren (Ingeleriak) esan digute formakuntza asko ematen diren eskualdea garela eta, hortaz, beraien urteko itxiera Astigarragan egin nahi dutela. Itxiera horretan landu nahi den gaia da: adimen artifiziala eta bere erabilgarritasuna gure eskualdean. Ekainaren 21ean izango da.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia. Idazkari- Kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriaz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren quztiaaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión del 13/05/2024.

En primer lugar, tras la lectura del acta correspondiente a la sesión celebrada con fecha 13/05/2024, la Presidenta somete a votación su aprobación y la Junta de Gobierno, por delegación de la Presidenta y por unanimidad, da el visto bueno a la misma.

2.- Informar sobre los trabajos posteriores que se vayan a realizar en torno a la Mesa de Turismo

La Directora recordó los temas tratados en la última mesa político-técnica de Turismo de la comarca. En la misma se comentó la necesidad de una reflexión turística comarcal para decidir cómo se trabajará a nivel comarcal. Se comentó que se va a realizar un contrato menor para realizar una elaboración turística comarcal, es decir, para ver cómo está cada ayuntamiento, cómo se pueden compaginar desde el punto de vista comarcal y qué es lo que queremos promover y trabajar.

La Presidenta añadió que la idea es hacerlo de forma eficiente y no duplicar los proyectos que desde la Mancomunidad y el Ayuntamiento se están llevando a cabo en esta materia.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko ekainaren 17a

Jorge reiteró su preocupación por la necesidad de realizar esta reflexión antes de contratar al técnico/a de Turismo.

Por su parte, Jorge en sus declaraciones dice que tenemos una técnica de Turismo al 50%, pero el Secretario-Interventor le corrige que esto no es del todo así, ya que en nuestra Relación de Puestos de Trabajo no aparece así. Lo único que aparece exactamente es la Técnica de Sostenibilidad al 100%, si bien es cierto que realiza el trabajo de Turismo en colaboración con Behemendi.

Jorge comenta que no sabemos muy bien lo que hace Behemendi.

Xabier de Astigarraga señala la necesidad de ofrecer turismo. En la Mancomunidad de Urola-Kosta, por ejemplo, hay un Técnico de Turismo y además cada municipio tiene su oficina de turismo (lugar de atención al turista).

3.- Informar sobre los trabajos posteriores que se realicen en torno a la Mesa de Cuidados.

La Directora señaló que lo trabajado en la última mesa de cuidados se utilizó principalmente para que cada municipio contara la situación en la que se encuentra, para poner sobre la mesa el caso de Maitelan y para que los Ayuntamientos indicaran qué elaboraciones ven que se necesitan en este ámbito a nivel comarcal.

La representante de Lasarte-Oria dice que asistió y que fue una asamblea muy interesante.

La Directora propone que se convoque una mesa técnica, para profundizar en los temas de los que salieron y seguir trabajando sobre todo en la cuenta de Maitelan,. La Junta de Gobierno lo ha visto bien y ha señalado que la fecha más propicia es septiembre.

4.- Informar sobre los posteriores trabajos que se realicen en torno a la Mesa de Sostenibilidad

La Directora explicó qué se había trabajado en la última mesa político-técnica de la comarca. La elaboración del plan energético de la comarca se puso en marcha a través de Asier Larretxea. Y se mostró interés por trabajar algunas líneas de trabajo:

- Creación de una oficina comarcal de energía (probablemente itinerante).
- Elaboración de los puntos de carga de los coches eléctricos, ya que los Ayuntamientos tienen dudas sobre este tema (buenas prácticas, cómo gestionarlos...).
- Red de bidegorris y vías verdes. Se vio la oportunidad de mejorar los lazos entre los pueblos. Como la elaboración es a largo plazo, se vio conveniente tomar el tema cuanto antes.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko ekainaren 17a

Se acordó convocar para septiembre la mesa técnica para la elaboración de la oficina de energía y otros temas.

La Presidenta añade que se va a actualizar el cuadro de proyectos de la Mancomunidad elaborado por Hiritik At para ver qué nuevas líneas y proyectos vamos a hacer.

5.- Explicar las novedades del proyecto Elkar Ekin

La Directora explica que en el programa Elkar Ekin, actualmente vigente, están trabajando la Técnica de Empleo de la Mancomunidad y un trabajador de Zabalduz Koop., y que hay que darle una vuelta. Desde la DFG también nos avisan de que no está bien que quien dinamice las mesas de los agentes comarcas sea el trabajador de Zabalduz, cuando a su vez es uno de los agentes. Por eso, esa dinamización y promoción nos piden que la hagamos desde la Mancomunidad.

A partir de ahora crearemos una red más profesional con los agentes de la comarca (habrá que firmar un convenio marco, etc.). Más adelante se detallará cómo actuar ya que la DFG ha establecido normas.

También hay que dar una vuelta a las formaciones, de momento sólo hemos hecho 2 y deberíamos ofrecer más.

La mesa de empleo de la comarca se convocará en julio para tratar dos temas importantes: la justificación ALE 2023 y Elkar Ekin 2025-2027.

Les comenta que los técnicos de cada municipio están informados, pero por si acaso les recuerda que tienen hasta el 5 de julio para realizar la justificación de las ALE 2023 a la Mancomunidad (envío de información y documentación).

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos.

6.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Patxi recuerda que habrá que dar una vuelta a nuestra Relación de Puestos de Trabajo y que intentará mejorar la comunicación en torno a la misma y a otros temas a tratar.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko ekainaren 17a

Por otra parte, reconoce que hemos contratado la comunicación de la Mancomunidad con una empresa, ya que por el momento, al menos, no tenemos técnico de euskera y comunicación. No obstante, señala que hay lagunas en los servicios de esa empresa, ya que en muchas ocasiones nuestros proyectos no llegan a la ciudadanía. Propone que quizá sea mejor para una óptima comunicación de los proyectos hablar con el responsable de comunicación en los Ayuntamientos y que publiquen las publicaciones que sean necesarias.

Por otra parte, en el ámbito del emprendimiento, para la adecuada prestación del servicio de emprendimiento a las personas migrantes, se pretende ofrecer una formación especial a personas migrantes que quieran poner en marcha un nuevo negocio, dado que sus necesidades son bastante diferentes a las del resto de emprendedores.

Jorge pregunta si abordamos bien todos los proyectos y si no es demasiado, a lo que Patxi responde que todavía es una idea y que es un tema que hay que analizar bien.

Por su parte, Patxi recordó que con la creación de la Mancomunidad se creó Beterri Saretu, entre varias empresas de la comarca y que a pesar de ser independientes, están interesadas en celebrar una reunión para hacernos llegar su presentación y exposición de sus acciones.

Por último, la Directora dice que el trabajo que tenía que hacer Garapen sobre Hazilan + no lo ha hecho, por tanto no hemos traído para su aprobación, por lo que intentaremos llevarlo a la próxima Junta de Gobierno.

En torno a las sesiones de digitalización (Ingneriak) nos han dicho que somos una comarca en la que se imparten muchas formaciones y que, por tanto, quieren hacer su cierre anual en Astigarraga. Es un tema que se quiere tratar en ese cierre: la inteligencia artificial y su utilidad en nuestra comarca. Será el 21 de junio.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E.,/Vº Bº
La Presidenta**



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024BG010007-GOBERNU BATZARREKO AKTA/ACTA JUNTA DE GOBIERNO